

OINARRI OROKORRAK DBH

1. GUTXIENEO BETEKIZUNAK/ESKAKIZUNAK

Irakasle postuak betetzeko:

- EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) edo baliokideak diren agiriak (Urriaren 6ko 263/1988 Dekretua; ikus protokolo honen eranskina).
- DBHko etapan eta Batxilerrean: beharra sortzen den arloko lizentziatura, edo behar horrekin bateragarria den lizentziatura eta IGZ (Irakaskuntzarako gaitasun Ziurtagiria). Lizentziatura deialdi bakoitzean zehaztuko da.
- Atzerriko hizkuntzetako irakasleen kasuan, gutxienez C1 edo baliokidea den agiria.

2. AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko bi bide daude:

- a) Ikastolako idazkaritza. Kasu honetan jasotako eguneko datarekin erregistratuko da eskaera eta aurkeztu dela ziurtatzen duen egiaztagiria emango da.
- b) Internet bidez, Ikastolak lan deialdi zehatzerako erraztuko duen bidea erabiliz, email helbide bat edo inprimaki bat izan daitekeena. Kasu horretan, iriste-data Ikastolako ordenagailuan agertzen dena izango da.

a. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Eskaeretan, curriculum vitae-an bertan aipatzen diren merituak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia erantsi behar dira; adibidez, lan-bizitzaren ziurtagiria, lan-kontratuak, titulazioak, ikastaroen asistentzia, etab. Eskaera Internet bidez iristen denean, dokumentazioa eskaneatuta erantsi behar da.

b. BAZTERTZEAK

Epe barruan eskaera egin baina eskatutako dokumentazioa erantsi gabe iristen direnei 5 eguneko epea emango zaie zuzentzeko.

Epea agortu eta zuzenketarik egin ez bada, baztertuak izango dira.

3. ZERRENDEN KUDEAKETA

a. ZERRENDEN INDARRALDIA

Zerrendak indarrean egongo dira berriak sortu bitartean. Zerrenda batean lortutako postuak ez du inolako eskubiderik ematen zerrenda berria eratzerakoan.

b. ZERRENDEN ERABILERA

Zerrenda lan konkretu baterako egiten denean, lana zerrendako lehenengoari eskainiko zaio. Honek uko egingo balio, hurrengoari eskainiko zaio.

Lan-poltsaren kasuan:

- Ordezkapen luze baterako beharra sortuz gero, beti lehen postuan dagoenak izango du lan hori betetzeko eskubidea.
- Gerta daiteke momentu horretan, lehenengo postuan dagoen irakasle hori ordezkapen motz bat betetzen aritzea, kasu honetan ere, beti lehenengoari eskainiko zaio lana eta honek uko egingo balio, orduan bigarrenari.

Ordezkapena motza denean, ikasle taldearekin urte horretan lan egin duen irakasle ordezkoari eskainiko zaio lana, beti ere langile hau zerrendako lehen 3ren artean badago.

Ordezkapena motza izango da, baldin eta zazpi egun natural edo gutxiago irauten badu, eta luzea, aldiz, aldi horrek baino gehiago irauten badu.

Arau aplikatzeak ez du ikasleen edo pedagogiaren kaltean izan behar, eta horren arriskua balego (gela berean irakasle aldaketa ugariak denbora gutxian gertatzea, adibidez), Etapa Arduradunak, Zuzendari-Kudeatzailearekin batera, eskumena izango lukete talde esleipena edo ordezkapena kudeatzeko.

c. HAUTAGAIEN UKO EGITEA

Hautagai batek justifikaziorik gabe, lan-eskaintza bati uko egiten badio, zerrendako azken postura igaroko da automatikoki. Era berean, lan-eskaintza bat egiteko berarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan bada hiru kasu baino gehiagotan, hautagaia zerrendako azken postura igaroko da.

Zentroko Zuzendari-kudeatzailearen esku dago hautagaiak baliaturiko arrazoia justifikatua den aztertzea, edota dokumentuen bidez justifikatzeko eskatzea. Zuzendari-kudeatzaileak zerrenden kudeaketan gertaturikoren berri eman beharko dio Bitariko Batzordeari, honek horrela eskatuko balu. Horretarako hautagai bakoitzeko erregistro bat burutu beharko du.

Uko egiteko arrazoi justifikatuak gaixotasuna, lanean aritzea edo ikasten aritzea izango dira, besteak beste. Eta idatziz egiaztatzea eskatuko da.

4. BAREMOAK ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

4.1. BAREMOAK

OSAGIAK	IRAKASLEAK
I.- MERITUAK	
1.- Eskarmentu profesionala <ul style="list-style-type: none"> • Etapari lotutako eskarmentua Eskatzen den lanpostuan eskarmentua • Hezkuntza orokorrean – Lana orokorrean 	0-30 0-25 0-5
2.- Ikastaroak eta beste tituluak <ul style="list-style-type: none"> • Beste tituluak • Lanpostuarekin loturiko ikastaroak • Beste ikastaroak 	0-15 0-10 0-4 0-1
3.- Ikastola mugimenduarekin harremana	0-5
4.- Euskara	-----
5.- Atzerriko hizkuntzak	0-8
6.- Mungialdean errolatua egotea	0-2
II.- PROBA PRAKTIKOA	
PROBA PRAKTIKOA <ul style="list-style-type: none"> • Ezagutza teorikoak • Ezagutzen erabilpena/konpetentzia • Euskararen kalitatea • IKT baliabideak 	0-40 0-8 0-16 0-8 0-8
	100

TALDE DINAMIKA/ELKARRIZKETA	
BERDINKETA HAUSTEKO	Ikasketa-espeditentea
	Egoera pertsonala

4.2. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Baremoaren barruan bi eratako puntuazioak bereizten dira:

- a) Merituak baloratzeko puntuazioak. Guztira, 60 puntu.
- b) Proba praktikoa. Guztira, 40 puntu.

Proba praktikoa egitea beharrezkoa denean, meritua baloratu ondoren egingo da, eta Bitariko Batzordeak erabakiko du puntuazio handiena lortu dutenen artetik, zenbat pasako diren proba praktikoa egitera.

4.2.1. MERITUAK

5.2.1.1 Eskarmentu profesionala.

a) Baloraziorako irizpide orokorrak

- Eskarmentu profesionalak gehienez 30 puntu izango ditu. “Beste lanpostuen” hautaketa proba praktikorik gabe egiten denean, 50 puntu izango ditu gehienez.
- Eskarmentu profesionala baloratzeko, azkeneko 5 urtetan egindako ibilbide profesionala hartuko da kontuan.
- Gizarte Segurantzaren egindako alta denboraldiak batu eta 365 eguneko, zehazturiko puntuak emango dira. 365 egun osatuko ez balitu, lan egindako egunengatik proportzionalki banatuko zaio puntuazioa.
- Bi eratako eskarmentu profesionalak bereizten dira:
 - Eskatzen den lanposturako eta mailarako/etaparako esperientzia izatea: Maila jakin batetarako aukeraketa egiten denean, maila edo ziklo horretan lan egin izana lehenetsiko da; baina inor egon ezean, etapa horretan aritu direnak baloratuko dira. Baremoa egiteko orduan Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloan egindako lanak balio bera izango du. Era berean DBHn eta Batxilergoan egindako lanak ere balio bera izango dute.
 - Hezkuntzan edo lanean orokorrean, eskatzen den lanposturako esperientzia izatea.

Oharra: Hautagaiak, azkeneko 5 urtetan bi eratako lanaldiak dituenen, biak kontabilizatuko dira.

b) Hautagaien baloraziorako irizpide zehatzak:

- Mailari, zikloari edo etapari lotutako eskarmentua – Eskatzen den lanpostuan eskarmentua
 - Larramendi Ikastolan lan egitea, urteko 5 puntu.
 - Konfederazioko beste ikastola batean lan egitea¹, urteko 3 puntu,
 - Beste ikastetxe batean lan egitea, urteko 1 puntu
- Hezkuntza orokorrean – Lana orokorrean

¹ Ikastolen Konfederazioko eskubide osoko bazkide diren Ikastola guztiak dira.

- Larramendi Ikastolan lan egitea, urteko 1 puntu.
- Konfederazioko beste ikastola batean lan egitea, urteko 0,5 puntu.
- Beste ikastetxe batean lan egitea, urteko 0,25 puntu.

Oharra: Proba praktikorik gabeko “beste lanpostuetako” hautagaien kasuan, Bitariko batzordeak egokituko du puntuazioa.

5.2.1.2. Ikastaroak eta beste tituluak

a) Ikastaroak:

- Baloraziorako irizpide orokorrak
 - Baloratuko diren ikastaroak ordu kopuruak zehazten dituztenak bakarrik izango dira.
 - IT txartelak ordu kopuruetara ekarriko dira: oinarrizko maila (10 ordu), maila aurreratua (20 ordu) eta maila bakarra (10 ordu).
 - Hautagai bakoitzak egin dituen ikastaroak multzotan sailkatuko dira (hezkuntzan aplikatu daitezkeenak eta bestelako ikastaroak).
 - Multzo bakoitzeko ordu kopuruaren batuketan oinarrituz, ordu gehien dituenari puntuazio handiena emango zaio. Beste hautagaien puntuazioa, puntu gehien lortutakoarekin ponderatuz emango da.
- Baloraziorako irizpide zehatzak:
 - Irakasleak:
 - Oro har, hezkuntzarekin erlazionaturiko ikastaroak: 4 puntu gehienez
 - Hezkuntzan aplikatu daitezkeenak, besteen artean: sorospen, musika, dantza, eskulanak,...: 1 puntu gehienez.

b) Beste tituluak:

Gutxieneko eskakizunak betetzeko (2.4 atala) beharrezkoak diren tituluez gainera, ziurtagirien bidez egiaztatzen diren beste tituluak (doktoradutza, masterra, lizentziatura, diplomatura, gradua...), puntu kopuru zehatzekin baloratuko dira. Haez gain beste tituluren bat (DECA, entzumena eta mintzamina) aurkezten bada, Bitariko Batzordearen egitekoa da titulu hauei puntuzko balore zehatz bat ezartzea.

- Lanpostuarekin erlazionaturiko beste tituluak:
 - Diplomatura: 2 puntu
 - Lizentziatura: 4 puntu
 - Gradua: 3 puntu
 - Masterra: 2 puntu
 - Doktoretza: 4 puntu
- Lanpostuarekin zer ikusirik gabeko beste tituluak:
 - Diplomatura: 0,5 puntu
 - Lizentziatura: 1 puntu
 - Gradua: 0,75 puntu
 - Masterra: 0,5 puntu
 - Doktoretza: 1 puntu

- Puntu horiek metagarriak dira, baina gehiengo puntuazioa betiere 10ekoa izango da, nahiz eta gehienezko puntuazioa gainditu.

5.2.1.3. Ikastolaren mugimenduarekin harremana

Ikastola mugimenduarekiko harremanak, gehienez 5 puntu izango ditu.

- Larramendi Ikastolako ikasle ohia, guraso izana edo izatea, eskolaz kanpoko ekintzetako monitore izatea: 5 puntu.
- Konfederazioko beste ikastola bateko ikasle ohia, guraso izana/ izatea, eskolaz kanpoko ekintzetako monitore izatea: 2 puntu

5.2.1.4. Euskara

Irakasle eta pertsonal tekniko eta administratibo lanpostuak betetzeko, euskara derrigorrez bete beharreko baldintza da, eta ondorioz, ez da baremoan baloratzen.

5.2.1.5. Atzerriko hizkuntzak

Atzerriko hizkuntzetan irakasle lanpostua betetzeko (ingelesa, frantsesa, alemana...), hizkuntza horietan gutxienez C1 edo baliokidea den agiria derrigorrez bete beharreko baldintza da, eta ondorioz, ez da baremoan baloratzen.

Baremo honek beste irakasle, pertsonal tekniko eta administratiboentzako eta beste lanpostuetarako balio du.

Irakasle eta Pertsonal tekniko eta administratiboen kasuan, gehienez 8 puntu izango ditu:

- C1/C2 edo parekideak diren agiriak: ingelesa 6 puntu, frantsesa 2 puntu eta alemana 2 puntu.
- B2 edo parekideak diren agiriak: ingelesa 4 puntu, frantsesa 1 puntu eta alemana 1 puntu.
- B1 edo parekideak diren agiriak: ingelesa 2,5 puntu, frantsesa 0,5 puntu eta alemana 0,5 puntu.

Beste lanpostuetan, gehienez 5 puntu izango ditu:

- C1/C2 edo parekideak diren agiriak: ingelesa 4 puntu, frantsesa 1 puntu eta alemana 1 puntu.
- B2 edo parekideak diren agiriak: ingelesa 2 puntu, frantsesa 0,5 puntu eta alemana 0,5 puntu.
- B1 edo parekideak diren agiriak: ingelesa 1 puntu, frantsesa 0,25 puntu eta alemana 0,25 puntu.

5.2.1.6. Mungialdean erroldatua

Mungialdean erroldatua egotea 2 puntu izango ditu.

Mungialdean erroldatua egotea baloratuko da, baina, horretarako erroldatze-ziurtagiria aurkeztu behar da.

5.2.3.- ERABAKIA HARTZEKO FASEA

5.2.3.1. Talde dinamika eta elkarrizketa

Bitariko batzordeak erabakiko du puntuazio handiena lortu dutenen artean zenbat pasako diren talde-dinamika eta elkarrizketa fasera. Era guztietara, gutxienez puntuazioaren erdia (50 puntu) lortu behar dira.

Talde dinamika saioa

Talde dinamika saioan, hautatuak izan direnak hezkuntza ereduari eta praktikari buruzko ikuspegiak, iritziak eta hausnarketa trukatzeko abagunea izango dute.

Iritzi trukaketa horretan, mugatu gabe baina garrantzia emango zaie Dekretuko 30 artikuluko c), d), i), j), k) eta f) gaiei.

Elkarrizketa

Talde dinamikan parte hartu duten guztiekin bakarkako elkarrizketak egingo dira.

Elkarrizketak bide eman dezake, besteen artean, hautaketa prozesuko gaiei buruz hitz egiteko eta, bereziki, lanpostuarekiko atxikimenduari buruzko jarrerak ezagutzeko.

5.2.3.2. Berdinketa haustea

Bi hautagaiek puntuazio bera lortuko balute, listan lehentasuna zehazteko, ondorengo irizpideak erabakigarriak izango dira, ordena honetan:

a) Espediente akademikoa.

Eskatutako titulazioko espediente akademikoan lortutako kalifikazioa erabakigarria izango da.

b) Familia egoera:

- Langabezi egoera lehenetsiko da, lan aldaketaren gainetik.
- Ezkontidearen langabezi egoera lehenetsiko da.
- Seme-alaba kopuru handia dutenak lehenetsiko dira.